

# Leku amankomunak



Asmatutako leku bat sortuko dugu, bizitako paisaietatik eta haien mugetatik edo bazterretatik abiatuta. Gizakiak ekosistemen eraldaketan duen eginkizunaren inguruan hausnartuko dugu, alderdi emozionalean arreta jarritz, ekologikoa alde batera utzi gabe.

## Helburuak

- Maddi Barberren sormen prozesu eta obrara hurbiltzea.
- Ekosistemaren kontzeptua lantzea, gure bizitza-esperientziatik eta emozio-esperientziatik abiatuta.
- Hezkuntza-komunitatean hausnarketa-prozesu bat sortzea.
- Collagearekin, soinuarekin eta mugimenduan dagoen irudiarekin esperimintatzea.

## Aipamenak

¿Te acuerdas? - *Pueblos bajo pantanos* - RTVE: <https://www.rtve.es/alacarta/videos/te-acuerdas/acuerdas-pueblos-bajo-pantanos/571184/>

20 urte Itoiz geldiarazi zuen ekintza zuzenetik: [https://www.youtube.com/watch?v=YG--s\\_-NZKY](https://www.youtube.com/watch?v=YG--s_-NZKY)

Borroka Itoizen (Ingalaterrako talde ekologistaren dokumentala): <https://www.youtube.com/watch?v=D3baufijc0>

Saia Itoizko urtegiari: <https://vimeo.com/66243626>

Irati, Koiuntura (1994): <https://www.youtube.com/watch?v=G2YMjtetyQQ>

Urpean lurra - Maddi Barber (Artikulu Zientifikoa): [https://www.google.com/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=2&ved=zahUKEwitwOfXrMnoAhVFzYUKHbheB24QFjA BegQIBhAB&url=http%3A%2F%2Fwww.ueu.es%2Fdownload%2Fartikulu%2FA38.7\\_9.Barber.pdf&usq=AOvVaw1e5AV8BZzf65VaMHUxfHHm](https://www.google.com/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=2&ved=zahUKEwitwOfXrMnoAhVFzYUKHbheB24QFjA BegQIBhAB&url=http%3A%2F%2Fwww.ueu.es%2Fdownload%2Fartikulu%2FA38.7_9.Barber.pdf&usq=AOvVaw1e5AV8BZzf65VaMHUxfHHm)

Maddi Barber, "Urpean lurra" - EITB KULTURA: <https://www.eitb.eus/es/television/programas/eitb-kultura/videos/detalle/6672533/video-maddi-barber-urpean-lurra/>

Bideoaren edizioa - DaVinci Resolve: [www.youtube.com/watch?v=8VnN1VvDYoM](http://www.youtube.com/watch?v=8VnN1VvDYoM)

## Proposamenaren garapena

### Aurkezpena

1. Maddi Barberi egindako *Urpean lurra - Eitb Kultura* elkarrizketa ikusten dugu.
2. Geure buruari galdetzen diogu:
  - Zer kontatzen digu Maddik bere filmetan?
  - Zer elementu erabiltzen edo agertzen dira filmetan? Gutxienez 5 zerrendatu.
  - Banaka, ezagutzen eta maitatzen dugun leku batean pentsatzen dugu, eta ur azpian imajinatzen dugu. Kontakizun labur bat idazten dugu urez betetako tokia deskribatuz, eta 5 lagunetako taldeetan konparatzen dugu.
  - Zeregina: pentsatu dugun lekuaren argazki bat bilatzen dugu, internet bidez edo familiaren artxiboan.

### Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Taldeka, leku indibidualak nahastearen ondoriozko leku amankomun bat sortzen dugu. Collage bat egiten dugu, aukera hauetako bat hautatuz:
  - Fotokopiekin, leku bakoitzeko zati esanguratsu bat ebakitzen dugu, eta paper handi batean itsasten dugu, zati bakoitzaren artean zuriunea utziz. Gero, guztien artean zatiek batzen dituen marrazki bat sortzen dugu, asmatutako paisaia bakarrean bihurtuz.
  - Irudiak horman jarritako estraza paper batean proiektatuz, irudi bakoitzaren zatirik funtsezkoenak kopiatzen ditugu, eta asmatutako lurralde-marrazki bakarria egiten dugu.
2. Zer da urtegi bat, zertarako balio du, zein da gure eskolatik gertuen dagoena, noiz eraiki zen eta uraren azpian zer dagoen. Ikerketa hauek gure leku maitatu, eta urez estalitako, testuarekin lotzen ditugu.

3. Klasean ekosistema batez hitz egiten dugu, nola funtzionatzen duen. Giza ekintzak nola eraldatzen du? Hurbileko adibideren bat bururatzen zaizue?

4. Zer da lurralde bat? Eta paisai bat? Desberdintasunen zerrenda bat egiten dugu.

5. Taldeetan, asmatutako gure leku amankomunean pentsatzen dugu eta horretarako balizko ekosistema bat diseinatzen dugu. Gutxienez lau izaki bizidun mota, beren, ezaugarri definitzaileenekin (abiatu den toki erreal bakoitzetik aterata izan daitezke).

6. Lurralde amankomunaren irudia grabatzen dugu (sortutako collagea) bertako izaki horietako bat bagina bezala. Kamerak bizi den lekua, egiten dituen ibilbideak, non elikatzen den, lo egiten duen, erlazionatzen den... erakusten du.

7. Giza ekintzak gure lurraldea/ekosistema eraldatuko duen istorioa asmatzen dugu. Kontakizun bat idazten dugu, non eraldaketak eta aldaketak azalduko diren. Dagoeneko egindako uholde-testuen inspirazioa edo zati batzuk erabil ditzakegu.

8. Istorioa audio batean grabatzen dugu, hainbat materialez egindako giro-soinuak erabiliz, irrati-erretratu balitz bezala.

### Ondorioak eta lerro irekiak

1. Audioa bideoarekin muntatzen dugu, ikus-entzunezko pieza bat sortuz.

2. Lekuaren irudia gure filmaren kartel bihur daiteke, eta ikastetxetik jarri estreinaldira gonbidatuz.

3. Eskolako beste taldeei erakusten dugu. Ikustaldiaren ondoren, proiektuan jorratutako gaien inguruko eztabaida ireki dezakegu.